

Lehen baino indar handiagoz da orain erreferentziazko operadorea iparraldean

**CNMC-K BAIMENA EMAN DIO EROSKI-RI
SABEKO-BANAKETA ETXEAREN 10
SUPERMERKATU EROSTEKO BIZKAIAN**

- **Honako udalerrri hauetan daude dendak: Basauri, Bilbao, Erandio, Galdakao, Getxo eta Santurtzi**
- **Izen aldaketa pixkanaka gauzatuko da COVID-19aren ezohiko egoera dela medio.**
- **EROSKI bere gain hartuko ditu saltoki horietako langile guztiak**

Elorrio, 2020ko maiatzaren 14a.- Merkatuen eta Lehiaren Espainiako Batzordeak ([CNMC](#)) baimena eman du hasierako fasean [EROSKI](#) [Simply](#) markako hamar supermerkatu eros diezazkion Sabeko Banaketa etxeari Bizkaian. Honako udalerrri hauetan daude saltokiak: bat Basaurin, bost Bilbon, bat Erandion, bat Galdakaon, bat Getxon eta beste bat Santurtzin; gutxi gorabehera, 8.500 metro koadroko azalera komertziala hartzen dute denak batuta.

EROSKI beste pauso bat eman du bere presentzia erreferentziazkoa eta garrantzizkoa den eskualdeetan indartzeko; kasu honetan, Euskal Autonomia Erkidegoan.

Gutxi barru, oraingo operadoreari operazioaren berri eman orduko, egutegi bat moldatuko dute dendak izenez aldatzeko, eta aldaketa hori pausoz pauso egingo dute, COVID-19ak eragin duen gaur egungo ezohiko egoera dela medio. Supermerkatuak eskualdatzean, EROSKIren asmoa da dendak berritzea eta Zurekin eredura egokitzea; hala, elikadura osasungarria eta jasangarria sustatuko ditu, ardatza tokian tokiko produktuetan eta sasoian sasoiko freskoetan ipinita eta arreta pertsonalagoa emanda.

EROSKI eutsi egingo die operazioan sartzten diren saltokietako lanpostu guztiei, lehengo lan baldintza beretan. Ia 300 profesional batuko dira EROSKIren langile taldera.

Hamar supermerkatu horiek lagunduko diote EROSKIri aurten betetzen 75 denda berri (propio nahiz frankiziatu) irekitzeko helburua.

EROSKIri buruz

Kooperatiba izaerako Espainiako lehen banaketa taldea da EROSKI, eta erreferentziazko operadorea Galizian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan, Katalunian eta Balearretan. 1.645 saltokiko sare komertziala du. Saltoki motari dagokionez, baditu supermerkatuak, hipermerkatuak eta cash&carry-ak eta, horretaz gain, gasolindegia, bidaia bulegoak eta kirol ekipamendurako dendak ere bai. Sei milioi Bezero-Bazkide baino gehiago ditu, eta 32.000 kooperatiba-bazkide eta langile-bazkide gora.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)